

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK I**

AHATE ITSUSIA

AHATE ITSUSIA

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

HELBURUA:

Bideoan ikusitako istoriotik abiatuta, fikziozko testu narratibo bat ekoiztea, Power Pointerako aurkezpen bat prestatzeko. Kanala: idatzizkoa/marrazkia/off-eko ahotsa. Eremua: fikziozkoa. Hartzailea: haurrak eta gurasoak.
Testua ekoizteko, planifikazioko, testuratzeko eta gainbegiratzeko eragiketak egingo dira.

EDUKIAK:

NARRAZIOARI BURUZKO KONTZEPTUAK:

Trama: Hartzaileari gertakarien berri nola emango zaion. Kasu honetan, trama anakronikoa izango da, hau da, bukaeratik hasieraraino.

Egitura:

Pertsonaia(k) psikikoki deskribatzea;

Espazioan kokatzea;

Espazioa deskribatzea;

NARRATZAILEA:

Narratzailea eta egilea pertsona bera dira.

Pertsonaiak garrantziaren arabera sailkatuak izango dira:

Protagonista eta antagonistak.

PLANIFIKAZIOA:

Testuaren EGITURA:

Hasiera :

Pertsonaia(k) izendatzea; pertsonaia(k) marrazkien bidez deskribatzea.

Korapiloa: Gertakariak:

Gertakari desorekatzaileak; egoera-aldaketak;

Trama :

Anakronikoa: kronologian atzera eginez;

Trantsizioak.

POLIFONIA: zehar-estiloa eta estilo zuzena.

TESTURATZEA:

Inguruaren koherentzia:

Irudia, kolorea eta errotulazioa.

Irudiaren kohesioa: (Komikian erabiltzen diren hainbat elementu erabiliko dituzte) biñeta, marra zinesikoak, izenburua, narratzailearen kutxatilan denbora edota lekua adieraziko dute.

Izenen kohesioa:

ANAFORA NOMINALA:

Errepikapena eta ordezkapena.

ANAFORA PRONOMINALA:

Erakusleak.

Aditzen kohesioa:

Gertakari desorekatzaileak nabarmentzeko, aditzaren aspektu burutua erabiliko da narratzailearen sekuentzietan.

Aditz perifrastikoak: nor(zer)-nork, indikatiboko orainaldia.

ANTOLATZAILEAK :

Behin batean; Bazen behin; Bat-batean; Halako batean; Une hartan; Zorion kontalariarentzat eta zorion entzun duenarentzat; Baino lehenago; Orduko; Eta gero; -(e)nez gero; -(e)neko; -(e)nean; ?t(z)ean ; -(e)n bakoitzean; -(e)n guztietan/-(e)n guztian; -(e)netik; -(e)netik hona; -tik hona; Arte; Harik etaarte;

KONEXIOA:

Lokailuak:

emendiozkoak: izen sintagma ETA izen sintagma (sing), izenordaina ETA izenordaina, BAITA / EZTA.

zehar-galderak.

Deklinabidea:

Bizidunen eta izenordainen deklinabidea pluralean: nork; norekin; norengana; norengandik; norengatik;

IDAZKETAREN ETA IRAKURKETAREN ESTRATEGIAK:

Teklatuko letrak minuskulaz eta maiuskulaz.

Errotulazioa

LEXIKOA:

Izenondoak: pertsonen izaera deskribatzeko.

Aditzondoak: ekintzen izaera deskribatzeko

JARDUERAK:

Lanaren planifikazioa hurrekin egitea eta ipuinaren biñetak denon artean marraztea eta margotzea. Ondoren, biñeten ordena ondo ziurtatzeko, zenbakia jartzea eta bakoitzari dagokion testu-zatitxo ondo kopiatzea paper batean, ordenagailura pasatzeko.

Biñeta bakoitzaren esalditxoaren ordenagailuan artxibatzea.
Irakasleak eskaneatuko ditu marrazkiak, eta ondoren Power Pointeko azalpena prestatzen hasiko da. Lehenengo aldia bada, haur bakoitzari bere marrazkia eta testua sartzen lagunduko dio; hau da, lan hau banan-banan egin beharko da.
Azalpena prest dagoenean, etxera zein web gunera eraman ahal da.
Baliabideen eta denboraren arabera, narrazioa graba daiteke, eta, ondoren, soinua ere azalpenean txerta daiteke.
Hori eginten bada, irakurketaren intonazioa eta ahoskapena landu beharko dira.

2.4.- GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

- Karatula: minutu bat.
- Narratzailea: 2/4 minutu.
- Kondaira: 12/16 minutu.
- Kredituak: minutu bat.

Gidoi literarioa:

AHATE ITSUSIA

LAMIA: Uda guztietan bezalatsu, ahate andrea txitatzen ari zen. Eta txitatxoak noiz irtengo zain zeuzkan lagun guztiak, beti izaten ziren-eta harenak txitarik ederrenak.

TXAKURRA: Zurrungaka

A.AMA: Zurrungaka

OILOA: Zurrungaka

OILARRA: Kikirikiiii

OILOA: Zer, noiz arte egon beharko duzu?

A.AMA: Ba...

OILOA: Ez zaizkizu ahate txoak jai?

A.AMA: Batek daki!

LAMIA: Mokoka eta mokoka, arrautza-azala urratu eta apurtzea lortu zuten ahatekumeek. Eta azkenean, irten egin ziren.

TXAKURRA: Aaaaah! Egun on! Uuum...

TXITA\TXITA\TXITA: Kuak, kuak, kuak...

A.AMA: Bazen garaia! Beroak nago, eta egarri naiz

OILOA: A zer politak diren! Eta potxoloak!

A.AMA: Goazen uretara, moñoñoak! Goazen...

TXITA\TXITA\TXITA: Kuak, kuak, kuak... (Abestuz??)

LAMIA: Pozez zorutzen zihoazen denak, eta ez ziren konturatu arrautzarik handiena oraindik apurtu gabe zegoela.

A.AMA: E? Oraindik horrela? Bihotzekoak emango dit!

TXITA\TXITA\TXITA: Amaaaaaaaaaaaa! Ammaaaaaaa!! kuak, kuak...

A.AMA: Sentitzen dut, hemen geratu behar dut. (OFF) Zoazte jolastera.

TXITA\TXITA\TXITA: Kuak, kuak, kuak...

OILOA: Zatozte, potxolo horiek, goazen ur freskoa edatera.

TXITA\TXITA\TXITA: Baai! Kuak, kuak, kuak...

LAMIA: Eta urtegirako bidea hartu zuten ahatetxo guztiek. Ura edatera eta bainatzera zihoan ilara alai eta zaratatsu hura!

TXITA\TXITA\TXITA: Kuak, kuak, kuak...

LAMIA: Bitartean, ahate andrea hantxe zegoen azken arrautza bitxi hura bere lumen epelean berotzen.

TXAKURRA: Egun on. Hor geratuko zara, ni ere banoa gerizpetara.

A.AMA: Nik hemen geratu behar dut, azken hau irten arte. Agur.

TXAKURRA: (OFF) Aguuur!

OILOA: Agian ez da irtengo. Utzidazu ikusten! / (Astintzen duen bitartean) Handia da gero! Eta kolorea ez du batere ona.

A.AMA: E, e, ateratzen ari da! Bazen garaia! Hasia nintzen itxaropena galtzen. Ufa!

LAMIA: Bai, bere anai-arrebak baino handiagoa zen, baina...

OILOA: Zer da hau? Ezin liteke izan, a zer itsusia den!

A.AMA: Ez esan hori, nire kumea da eta!

OILOA: Nire txita guztiak ederrak baino ederragoak dira. Agur!

A.AMA: Ja! Ederrak baino ederragoak... Ez egin jaramonik, laztana, mingain luzea du horrek eta.

A.AMA: Goazen uretara zure anai-arrebeengana!

A.ITSUSIA:(OFF)

A.AMA: Bero itzela pasatu dut! Bainua hartzeko irrikaz nago.

LAMIA: Eta elkarrekin urtegira joan ziren A.AMA eta bere txita berri bitxia.

TXITA: Jo, zer itsusia den!

TXITA: Hala da bai...

TXITA: Kuak, kuak...

A.AMA: Nolatan esan daiteke hori?

TXITA: Benetan itsusia da, ama!

A.ITSUSIA: (Hasperena)

LAMIA: Ahatetxoa triste-triste zegoen, konturatzen zelako han ez zutela maite.

TXITA: Itsusia eta zatarra da gero!

TXITA\TXITA:Kuak, kuak, kuak...

A.AMA: Zatoz hona, goazen!

A.ITSUSIA:(OFF) Ez dut nahi!

OILOA: Marka da gero! Itsusia ez ezik, esan txarrekoa!

LAMIA: Anai-arrebak brometan eta adarra jotzen ibiltzen zitzaizkion. Eta barre egiten zioten eta "itsusia" deitzen.

TXITA: Tentela halakoa!

A.ITSUSIA: Ai, ai, ama! / Ai ama!

A.AMA: Uztazu bakean, ez egin mokoka! Uztazu nire kumetxoa bakean! Aditu didazu?

A.ITSUSIA: Ama, ama!

OILOA: Bai, bai, esanekoa izaten irakatsi besterik ez nion egin nahi

A.AMA: (A.ITSUSIAri) Min egin dizu? (Besteari) Alde hemendik, sudurluze endreda-makila halakoa!

A.ITSUSIA: (Negarrez)
TXITA: Zergatik egiten dio amak guri baino kasu gehiago?
TXITA: Hori diot nik!!
TXITA: Ez dakit. Baina zerbait egin behar dugu.
TXITA\TXITA: Baai!
A.AMA: Ez kezkatu, bihotza!
A.ITSUSIA: Amaaaa...!
LAMIA: Egunak joan, egunak etorri, ez zuen itxura hobea hartzen.
A.AMA\A.ITSUSIA:
LAMIA: Alderantziz... txarragoa hartzen zuen.
LAMIA: Arinegi hazten zen. Eta argala eta baldarra ez ezik...
LAMIA: ... traketsa ere bazen koitadua.
A.AMA\A.ITSUSIA:
LAMIA: Beste egun bat argitu zuen. Zer ekarriko zion zoritxarreko ahatetxoari?
OILARRA: Ki-kiri-kiiiiiii
TXITA\TXITA\TXITA\A.ITSUSIA:
LAMIA: Urtegian, anai-arrebekin ondo konpontzen ahalegintzen zen. Baina hain desberdina zenez, haiek ez zuten euren artean onartzen.
TXITA: Zu ez zara gutarra, ezin duzu hemen jan.
TXITA: Alde hemendik!
TXITA: Aska honetara, hurbildu ere ez.
A.ITSUSIA: Ama, ama!
TXITA: (OFF) (Barre) (ON) Kanpora!
TXITA: Negarti hori!
TXITA: Kanpora!
TXITA: Alde hemendik!
TXITA: Kanpora!
A.ITSUSIA: Ama, ama!
A.AMA: Zer egin diozue? Zergatik zarete hain gaiztoak? E?
TXITA\TXITA:
TXITA: Ez da gu bezalakoa!
TXITA: (OFF) Oso itsusia da!
A.AMA: (OFF)Ez esan hori! Uztazue bakean!
TXITA: Ez da gure anaia! // Eeee!!
TXITA: Ez horixe!
TXITA: Ospa hemendik!
A.AMA: Eziozue horrelakorik esan... zuen anaia da!
TXITA: Bilatu beste familia bat!
TXITA: Ez da nire anaia!
TXITA: Fuera, alde hemendik!
TXITA: Hori ez da gutakoa!
TXITA: Doala!
A.AMA: Baina zer...baina zer-zer...?
LAMIA: Orduan erabaki zuen ahatetxoak beste norabait joan beharko zuela benetako lagunak aurkitzera.
TXITA: Oso itsusia daaa!
A.AMA: (Negar)
TXITA: Zu ez zara gure neba!
TXITA: Alde beste familia batengana!
TXITA: Fuera, ospa hemendik!

TXITA: Itsusia, baldarra, traketsa...!

A.ITSUSIA: Buaaaa! Banoa! Aurkituko dut norbait nire itxura gorabehera maitatuko nauena.

ATSOA: (Kanta)

LAMIA: Bideari ekin eta laster heldu zen baserri batera. Bertako atsoak adeitasunez hartu zuen berean.

ATSOA: Hara, ahate bat! (Ad Lib)

LAMIA: Atsegina eta maitekorra zen...

ATSOA: Galdu egin zara?

A.ITSUSIA: Ba...

ATSOA: Goseak amorratzen zaude.

ATSOA: Nondik zatoz?

A.ITSUSIA: Oso urrunetik...

ATSOA: Polit hori... Sar zaitetz, hemen biziko zara.

A.ITSUSIA: Eskerrik asko.

LAMIA: Eta pozik eta zorionsu sartu zen bere etxe berrian.

KATUA: Ei, aizu, oilasko! Ikusi duzu? (Barre)(Barre) // (Barre)

OILASKOA: A zer itsusia! Nor da? // Itsusia eta zatarra da gero!

A.ITSUSIA:(Ad Libak) // Hemen atsedean hartu ahal izango dut azkenean!

KATUA: Et, et, et... Hori oiloaren lekua da.

A.ITSUSIA: O, tira... horrela bada...

LAMIA: Berehala ohartu zen gure ahatetxoa baserri hartan ere gauzak ez zirela hain errazak izango... eta han ere ez zutela beste edozein bezala onartuko eta maitatuko.

A.ITSUSIA: Jo! Zer egingo dut orain? Non hartuko dut atsedean? Izkina horretan agian...

(Ad Lib)

OILASKOA: Ez dakit zer egingo dugun horrelako ahate zatarrarekin!

KATUA: Lehenbailehen bota behar dugu hemendik.

OILASKOA: Et, et, et! Hori katuaren txokorik gogokoena da.

A.ITSUSIA: Baina, neka-neka eginda nago...

ATSOA: Juuuhm... Tomate pixka bat... Kar, kar, kar...

OILASKOA: Hor ere ez, nire txokoa da eta. Zer kasualitatea, ezta?!

LAMIA: Egia esanda, atso hura oso gaiztoa zen, eta lehen plater bezala jateko baino ez zuen nahi ahatetxoa.

A.ITSUSIA: ... Hementxe jesarriko naiz...

ATSOA: Uuuuhmm! Zer gozoa! Kar, kar, kar...

KATUA: Ba, hor ni jartzen naiz noizean behin. Alde, alde!

ATSOA: Orain perretxikoak...

A.ITSUSIA: Utzi bakean, mesedez... lo egin nahi dut...

LAMIA: Olio errea ia prest zeukan atso zaharrak... Laster helduko zitzaion azken ordua ahate gizajoari.

ATSOA: Azenarioak ere bai... gozo-gozoak dira-eta... Kar, kar, kar...

KATUA: Ez, hor ez!

OILASKOA: Kar, kar, kar...

ATSOA: Eta orain. Azken ukitutxoa... Kar, kar, kar...

A.ITSUSIA: Baina, zer gertatzen da etxe honetan?

ATSOA: Aparta egongo da!

LAMIA: Hala ere, gura lagunak ez zeukan gertatzeaz zegoenaren arrastorik txikiena ere...

OILASKOA: Hor ere ez!

KATUA: Ez, hor ez!

OILASKOA: (Ad Lib)

OILASKOA: Hor ere ez!

KATUA: Ez, hor ez!
KATUA: Ez, hor ez!
OILASKOA: Hor ere ez!
KATUA: Ez, hor ez!
OILASKOA: Hor ere ez!
A.ITSUSIA: Aaaaaarrgh! Kuak!
ATSOA: Zer da nahaste hau?
OILASKOA: Ahateak egin du!
KATUA: Baldar hutsa da, enbarazua besterik ez du egiten!
OILASKOA: Hori, hori...
ATSOA: Zatoz, etorri hona, ahate txo polit hori... jan egingo zaitut eta!
KATUA: (Barre)
OILASKOA: Joan da azkenean... (Barre)
LAMIA: Eta arineketan utzi behar izan zituen gizajoak baserria eta bertan aurkitu zituen lagunak ere.
A.ITSUSIA: Aaaa! Banoa hemendik!... Inork ez nau maite... Zergatik? Zergatik?
KATUA: Ez, hor ez!
ATSOA: Gozo-gozo egongo zara. Zu zaude lasai... Ikusiko duzu...
KATUA: Ez, hor ez!
ATSOA: Huuum! Zer gozoa!
OILASKOA: Hor ere ez!
LAMIA: Negua laster helduko zen, eta A.ITSUSIAk ez zuen ez etxerik ez familiarik aurkitzen.
LAMIA: Txiripaz, bertatik pasatu zen baserritar bat.
AITA: Ene! Hori da ahate ederra... Etxera eramango dut...
SEMEA: (Barre)
ALABA: (Barre)
AITA: Aizue, aizue... Begira... Begira ezazue zer aurkitu dudan!
SEMEA: Erakutsi!
ALABA: / Jolas gaitezke berarekin?
AITA: Bai, baina ez gaizki tratatu. Apur bat gizentzen denean, jan egingo dugu.
ALABA\SEMEA: Bai, bai... zer ondo!
LAMIA: Zoritxarrez, baserritarraren seme-alabek ez zioten bakerik ematen!
SEMEA: Baietz bete-bete eman!
ALABA: Ezetz!
SEMEA: Ea ba!
LAMIA: Egun osoan atzetik...
SEMEA: (Barre)Zatoz hona, ez dizut minik egingo!
ALABA: (Barre)
SEMEA: (Barre)Paita, paita, non zara?
LAMIA: Aita, bere aldetik, jateko unea noiz helduko zen irrikan zegoen.
AITA: Ai, hauek seme-alabak hauek! Ondo tratatzeko esan nizuen ba!
ALABA: Hartu hau, tori, begira zer dudan!
SEMEA: Paita, paita, non zara?
AITA: Zertan diharduzue?
SEMEA: Ahatea ezkutatu egin da.
ALABA: Ez dugu aurkitzen.
AITA: Ez nizuen ba esan ez gaizki tratatzeko? E?
SEMEA: Jolastu baino ez gara egin (Ad Lib)
ALABA: (OFF) Non sartu zara, ahate txo?
SEMEA: (OFF) Ahate txo, ahate txo!

AITA: (OFF) Eta orain zer jango dugu?

LAMIA: Ez zegoen dudarik: lehenengo aukera aprobetxatu beharko zuen handik ihes egiteko, negua ate joka bazetorren ere.

AITA: Non demontre sartu zara? Brrr... Aurkitu beharra dago...

ALABA: Non zaude? Kua, kua, kua... Ahatea...

SEMEA: Paitta... paitta... paitta...!

A.ITSUSIA: Ez ahal naute aurkituko, Jainkoarren! Ama nirea! Onik ateratzen banaiz, txiripaz izango da!

AITA: (OFF) Alde egin digu! Agur, gure janaria!

LAMIA: Agur, bai!... Alde egitea lortu zuen.

ALABA: Paita, paita, paita... Non zaudeee?

SEMEA: Non sartu zara? Non sartu zara, ahate itsusi hori?

AITA: Afari barik gelditu gara, afariak ospa egin digu!!!

A.ITSUSIA: Zer egingo dut? Nora joango naiz? Zer gertatuko zait?

LAMIA: Neguari aurre eman behar zion nola edo hala.

LAMIA: Goiz batean, hegadak zabaldu zituen, horrela eguzkiaren beroa hobeto sentitzeko. Eta ia konturatu gabe, hegan hasi zen, eta lorategiaren erdian urtegi handi bat zeukan etxe batera heldu zen. Neka-neka eginda zegoen, ahituta. Baina negua mina zen oraindik..

LAMIA: Han, urtegian, hiru hegazti benetan eder aurkitu zituen laster. Hurreratu nahi zuen, baina ez zen ausartzen. Eta badakizue zer? Haietako bat, zuri-zuria eta liraina, beltxarga zen. Baina gure ahateak ez zekien hori..

BELTXARGA: Oraintxe nator!

MARROIA: Eta hau nora doa orain?

BELTXARGA: Kaixo!

BELTXARGA: Zer duzu, haserre zara?

A.ITSUSIA: Ez!

HORIA: Nor zara? Izututa dirudi.

BELTXARGA: Ba, gu bagoaz. Zatoz gurekin, hegoaldera joango gara, eguzkiaren lurretara.

HORIA: Etorriko dela uste duzu?

MARROIA: Baietz esango nuke.

A.ITSUSIA: Besteek onartuko ote naute?

BELTXARGA: Zergatik ez ba?

A.ITSUSIA: Ni ez naiz zuek bezalakoa!

BELTXARGA: Ez esan txorakeriarik! Gainera hori bost axola zaigu. Gure taldean denetik dago, mota guztietako hegaztiak elkartu gara...

HORIA: Listo... konbentzitu du...

BELTXARGA: (ON)... eta ez dakizu zeinen ondo (OFF) pasatzen dugun!

A.ITSUSIA: Ez dakit.

BELTXARGA: Gurekin etortzeko esan diot, zer deritzozue?

HORIA: Oso ondo!

MARROIA: Itzel. Datorrela, bai...

BELTXARGA: Zatoz, eta oso ondo pasatuko duzu.

A.ITSUSIA: Uuummh... Ongi ba, joango naiz!

LAMIA: Pozaren pozez bete zitzaion bihotza gure ahateko itsusiari. Familia eta bizitzeko lekua aurkitu zituen azkenean! Orain bai, ziur zegoen... urtegi hartan eta lagun haien ondoan zoriontsu biziko zela betiko.

MARROIA: Kaixo!

A.ITSUSIA: Kaixo!

HORIA: Zer moduz?

A.ITSUSIA: Ongi!

MARROIA: Nola duzu izena?

A.ITSUSIA: Ni? Ba, egia esan, ez dakit.

MARROIA: Nongoa zara?

A.ITSUSIA: Ni?

HORIA: Bai.

A.ITSUSIA: Oso urrunekoa. Oso urrunetik nator. Kontatu egingo dizuet nire historia.

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerraren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-12-16**

LEGE GORDAILUA: : SS-1589/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**